

DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO INFORMAZIO POLITIKA

DATU PERTSONALEN ARLOKO INFORMAZIO POLITIKA: ESKUBIDEEN ERABILPENAREN KUDEAKETA
Tratamenduaren arduraduna
AROGESTION AHORRO-JUBILACION, EPSV Helbidea: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa). IFZ V20658365 Telefonoa: 943 79 01 00 DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN HARREMANETARAKO DATUAK Helbide elektronikoa: dpo@lagunaro.es
Tratamenduaren helburua
Pertsonak beren datu pertsonalen tratamenduari buruz egindako eskaerak kudeatu, aintzat hartu eta ebazteko tratatuko dira datuak.
Tratamenduaren legitimazioa
Datuak legezko betebeharrak betez tratatuko dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.c) artikuluen arabera.
Datuak komunikatzea
Legez ezarritako betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren erakunde publiko edo pribatuei jakinaraziko zaizkie datuak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.c) artikuluen arabera. Era berean, datu pertsonalak LagunAro Servicios S. Coop.ek eta papera suntsitzeko zerbitzua ematen duen enpresak tratatuko dituzte, bai eta eskubideen erabilpena behar bezala kudeatzeko behar den beste edozeinek ere, Arogestionen kontura eta haren jarraibideak betez.
Nazioarteko transferentziak
Ez dago aurreikusita zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik.
Datuak gordetzea
Datu pertsonalen tratamenduari buruzko eskubide bat eskatzean sortutako datu pertsonalak gorde egingo dira prozesua amaitu eta artxibatu arte, bai eta datuen tratamenduaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunen preskripzio aldietan ere.
Eskubideak
Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta lekualdatzeko, mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, baita ere, dagokionean, zure datuen tratamendu automatizatu hutsean oinarritutako erabakien xede ez izateko, LagunAroko datuak babesteko ordezkariaren aurrean, helbide elektroniko honetara jota: dpo@lagunaro.es edo posta helbide honen bidez: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa). Uste baduzu zure eskubideak ez direla bete, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea daukazu.
Segurtasun neurriak

Datuak modu konfidentzian tratatuko dira eta neurri tekniko eta antolaketa neurri egokiak aplikatuko dira, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren aurkako eta datuen galera, suntsipen edo ustekabeko kaltearen aurkako babesa barne, arriskuaren araberako segurtasun maila bermatzeko.